



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

2022ko GUFÉko enplegu publikoaren eskaintza zati batean aldatzea, Biltegi-ko goi mailako Teknikari, Ekonomista eta Arduradun kategorietarako.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko uztailaren 21ean eginiko ohiko bileran (3/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Bakarra*: GUFÉren 2022ko Lan Eskaintza Publikoaren zati bat aldatzea, Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko Erabakiaren bidez onartu zena eta urte bereko abenduaren 30eko 248 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behar bezala argitaratu zena, Goi Mailako Teknikari, Ekonomista eta Biltegi-ko Arduradun kategoriek guztira hiru (3) plaza betetzeko; hori guztia aurreko txostenaren babesean eta eranskinean adierazten den motibazio eta irismenarekin, halako moldez non lanpostu horietarako deialdia orain derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizunarekin egingo den. Bete bedi.»

Bilbon, 2025eko abuztuaren 6an. —GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia



ERANSKINA

**2022KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOKO LANPOSTUEN
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAREN DERRIGORTASUNA ALDATZEA**

Plazaren kodea	Plazaren izena	Plaza huts kopurua	Txanda irekia		Promoción interna	
			Derrigorrezko H.E.	H.E. ez da derrigorrezkoa	Derrigorrezko H.E.	H.E. ez da derrigorrezkoa
110	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	1		1		
210	EKONOMIALARIA	1		1		
360	BILTEGIKO ARDURADUNA	1		1		
	GUZTIRA	3		3		